


Haurreskolak Partzuergoa publikoa, doakoa eta unibertsala

STEILAS sindikatuan Haurreskolak Partzuergoa publikoa, doakoa eta unibertsala behar duela izan aspaldi eskatzen gabiltza. Hitz utopikoak iruditzen arren, Haurreskolak Partzuergoko oraina eta etorkizuna baldintzatzen duten hitzak dira. Eskuetan datu ofizialak ditugula, gaur egungo kuota politikak ez du etorkizunik, eta pausu ausartak eman behar ditugu DOAKOTASUNAREN bidean.

EAEko jaiotza datuak (Eustat) eta matrikulazio datuak



■ Jaiotako haurrak EAEn.

■ Jaiotako zenbat haur matrikulatzen diren Haurreskolak Partzuergoan (iraileko %).


(*) EUSTATen aurreikuspenak.

(*)2) Gaur egungo matrikulazio tasak mantenduko balira lortutako portzentaiak.


Datu hauek ikusirik gure agintariek ez ote dute pentsatu jaiotzen tasa handitzeko lagungarria izango litzatekeela familientzat Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa doakoa izatea?

Plazak haurreskoletan 2017ko irailean

Plaza beteak 4.555 (% 53,2) Plaza libreak 3.996 (% 46,8)



0-2 Urte bitarteko matrikulazioaren garapena 2012tik 2015era*



(*) Euskadiko Eskola Kontseiluaren "Hezkuntza Euskadin 2013-2015" txostenetik ateratako datuak.

■ Haurreskolak Partzuergoa eta Udal haurreskolak.


■ Pribatuak ■ Guztira

Haurreskolak Partzuergoak 8.551 plaza ditu eta 2017ko irailean 3.996 plaza bete barik zituen! Plaza publikoak betetzen ez diren bitartean Eusko Jaurlaritzak diru publikoa ematen dio sare pribatuari, non familiak kuota merkeagoak ordaintzera iritsi ahal diren eta askotan ratioak errespetatzen ez diren (zerbitzuaren kalterako).

Bitartean, uztailean, irailean eta urrian Haurreskolak Partzuergoko langile asko desplazatuak dira eta horrela Enpresak kontratu egonkorra egitea ekiditen du.

Madrilgo Udaleko haurreskoletan kuota % 80ra arte jaitsi eta gero (zenbait kasutan, % 100ean), gelak betetzea lortu dute. Eusko Jaurlaritzak, ordea, sare pribatua diru publikoarekin sustengatzeko politika bultzatzen duen bitartean, nahiago du Haurreskolak Partzuergoko plazen erdia bete barik izatea konponbideak bilatzen hastea baino.

0-3 ETAPA PRIVATIZATZEN



HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

0-3 zikloaren zatiketa.

Doakotasunaren bidean aurrerapausorik ez da ematen.

Haurreskolak Partzuergora datozen haurrei eta familiei ez zaie eskola-biderik ziurtatzen.

Langileon behin-behinekotasuna % 40an mantentzen da.

Haurreskola txikiak 7 ordu daude zabalik hezitzaile bakarrarekin.

Matrikulazio jaitsierari aurre egingo dion neurririk ez da hartzen.

Haurreskolak Partzuergoak prekarietatearen kudeaketa soila burutzen du ardura politikoa Eusko Jaurlaritzarena den bitartean.

Enpresak alde bakarrez hartutako erabakien ondorioz zerbitzuaren kalitatea kolokan jartzen du eta langileok gure eskubideak babestera epaitegietara jo behar dugu.

Familiek kuota jasanezinak ordaindu behar dituzte, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu elitista-klasista batean bihurtu du Haurreskolak Partzuergoa.

0-3 ESKOLA PRIVATUAK

Erljioaren derrigortasuna

Hurtzaindegi eta eskola pribatuen arteko itunak.

Familiek eta haurrek 0-18 urte bitarteko eskola-bidea ziurtatuta dute kasu gehienetan, Eusko Jaurlaritzak babestuta.

Matrikulazio jaitsierari aurre egiteko erabakiak hartzeko askatasuna.

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzen bitartez finantziatua, hezkuntza itunik ez duen adin tartea izanik (EAEko 272 eskolei, 24,6 milioi euro 2017an).

Jasotzen dituzten diru-laguntzen kontrolik ez da existitzen, ez da jarraipenik egiten.

Zenbait kasuetan, familiei kuota merkeagoak kobratzera heldu daitezke. Konpetentzia desleiala.

Ideologikoki oso estuak diren idearioak ezartzen dituzte eskola askotan.

Euskararen garapena ez dago babestuta zentro askotan.

- ... Ratioak txikitu.
- ... Doakotasuna benetan publikoak eta unibertsalak izateko.
- ... Jaiotza tasaren jaitsierari aurre egiteko neurriak hartu.

Haurreskolak Partzuergoak etorkizuna izan behar badu, Euskal Hezkuntza Sistema Publikoan integratua behar du egon!!